

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Erregelamendua: 390/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko apirilaren 23koa, ordezkariak diplomatikoei eta karrerako bulego kontsularrei zuzendutako Erkidegoko Jarraibide Kontsularra aldatzen duena, identifikatzaile biometrikoak sartzeari dagokionez, eta bisatu-eskaeren harreraren eta izapidetzearen antolaketari buruzko xedapenak ematen dituena

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (ce) n° 390/2009 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de abril de 2009, por el que se modifica la Instrucción consular común dirigida a las misiones diplomáticas y oficinas consulares de carrera en relación con la introducción de identificadores biométricos y se incluyen disposiciones sobre la organización de la recepción y la tramitación de solicitudes de visado» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 131/1, 2009/05/28koa*)»

390/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131/57, 2009/05/28koa)

(EE/Euratom Tratatuak aplikatzeko onartutako egintzak. Derrigorrezkoa da egintza horiek argitaratzea)

## ERREGELAMENDUAK

### 390/2009/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko apirilaren 23koa,

**ordezkaritza diplomatikoei eta karrerako bulego kontsularrei zuzendutako Erkidegoko Jarraibide Kontsularra aldatzen duena, identifikatzaile biometrikoak sartzeari dagokionez, eta bisatu-eskaeren harreraren eta izapidetzearen antolaketa buruzko xedapenak ematen dituena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 62. artikuluan 2. paragrafoaren b) idatz-zatiaren ii) tartekia aztertu dute.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Datuen Babeserako Europako Ikuskariaren irizpena aztertu dute (1),

Tratatuko 251. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu diote (2),

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

- (1) Bisatu-eskatzaileen nortasuna fidagarritasunez egiaztatu ahal izateko, beharrezkoa da identifikatzaile biometrikoak sartzeari Kontseiluaren 2004/512/EE Erabakiaren bidez ezarritako Bisatuen Informazio Sistemari (VIS) (3). Halaber, beharrezkoa da identifikatzaile biometriko horiek jasotzeko esparru juridikoa ezartzea. Bestalde, VIS sistema ezartzeko, bisatu-eskaeren harrera egiteko beste antolaketa modu batzuk behar dira.
- (2) VIS sisteman identifikatzaile biometrikoak sartzeari urrats garrantzitsua da bisatuaren jabearen eta

pasaportearen artean lotura fidagarriagoa ezartzen duten beste elementu batzuk erabiltzen hasteko, nortasun faltsuak erabiltzea eragoz dadin. Hortaz, oinarritzko betekizunetako bat izango da bisatu-eskatzailea bera agertzea —gutxienez, lehenengo eskaeran—, VIS sisteman identifikatzaile biometrikoen erregistroa duen bisatua egiteko.

- (3) Identifikatzaile biometrikoak hautatuko zirela erabaki zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko uztailaren 9ko 767/2008/EE Erregelamenduan, Bisatuen Informazio Sistemari (VIS) eta estatu kideen artean epe laburrerako bisei buruzko datuak trukatzeari buruzkoan («VIS Erregelamendua») (4).

- (4) Erregelamendu honek identifikatzaile biometrikoak biltzeko arauak zehazten ditu, Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundeak (HEZINEK) ezarritako xedapen egokiak aipatuz. Ez da behar beste zehazpen teknikorik, elkarreragingarritasuna bermatzeko.

- (5) Estatu kide batek bisatu-eskaeran zehar jasotako dokumentu, datu eta identifikatzaile biometriko guztiak agiri kontsularretatik hartuko dira, lankidetzako kontsularren buruzko 1963ko apirilaren 24ko Vienako Hitzarmenari jarraiki, eta agiri kontsular gisa erabiliko dira.

- (6) Bisatu-eskatzaileen erregistroa errazteko eta estatu kideen kostuak murrizteko, antolaketa-aukera berriak aurreikusi behar dira, bai eta ordezkari diplomatikoaren eta kontsularren esparruan ere. Lehenik eta behin, ordezkari diplomatikoetara eta karrerako bulego kontsularretara zuzendutako Erkidegoko Jarraibide Kontsularrenari (5) berariazko ordezkari mota bat gehitu behar zaio. Ordezkaritza horren funtzioak izango dira bisatu-eskaerak jasotzea eta identifikatzaile biometrikoak erregistratzea.

<sup>1</sup> C 321 EO, 2006.12.29koa, 1. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko uztailaren 10ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea), Kontseiluaren Jarrera Bateria, 2009ko martxoaren 5ekoa, (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2009ko martxoaren 25ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

<sup>3</sup> L 213 EO, 2004.06.15ekoa, 5. or.

<sup>4</sup> L 218 EO, 2008.08.13koa, 60. or.

<sup>5</sup> C 326 EO, 2005.12.22koa, 1. or.

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (7) Halaber, beste aukera batzuk ere sartu behar dira, besteak beste: ordezkaritza diplomatikoak edo bulego kontsularrak elkartzea, eskaerak aurkezteko zentro erkideak, ohorezko kontsulak eta kanpo-zerbitzuen eskaintzaileen lankidetzak. Esparru juridiko egokia ezarri behar da aukera horientzat, eta arreta berezia jarri behar zaie datuen babesarekin lotutako alderdiei. Estatu kideek erabaki behar dute zer antolaketa-egitura mota erabiliko duten hirugarren herrialde bakoitzean, oraingo esparru juridikoan ezarritako baldintzei jarraiki. Batzordeak egitura horiei buruzko informazio zehatza argitaratu behar du.
- (8) Lankidetzak antolatzean, garrantzitsua da estatu kideek bermatzea eskatzaileak bidaliko direla beren eskaera hartzeko ardura duen estatu kidera.
- (9) Prozedura errazteko, beharrezkoa da xedapenak hartzea, estatu kideek bisatu-eskaeren bilketarako zerbitzu-hornitzaile batekin lankidetzan aritzea erabakitzen dutenerako. Erabaki hori har daiteke, baldin eta egoera bereziak edo kokapenarekin lotutako arazoak direla-eta estatu kide interesdunarentzat ez balitz egokia beste estatu kide batzuekin lankidetzan aritzea ordezkaritza mugatuaren bidez, eta instalazioak edo eskaera-zentro erkide bat elkarrekin erabiltzearen bidez. Xedapen horiek bisatuak egiteko printzipio orokorrak betetzeko ezarri behar dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentarauan ezarritako datuen babeserako betekizunak errespetatuz. Zuzentaru hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez <sup>(1)</sup>. Horrez gainera, nahitaezkoa da kontuan izatea ez dela hitzarmenezko bisatu bat bilatu behar, xedapen horiek aplikatzean.
- (10) Estatu kideek kanpo-zerbitzuen hornitzaileekin lankidetzan jardun behar dute, hauei buruzko xedapenak dituen tresna juridikoan oinarrituta: beren ardura zehatzak, lokaletarako sarbide zuzena eta osoa, eskatzaileei eman beharreko informazioa, konfidentzialtasuna, eta lankidetzak eteteko edo desegiteko egoerak, baldintzak eta prozedurak.
- (11) Erregelamendu honek estatu kideei kanpo-zerbitzuen hornitzaileekin lankidetzan aritzeko aukera ematen die, bisatu-eskaerak jasotzeko, baina aldi berean, bisatu-eskaera aurkezteko «leihatila bakarraren» printzipioa berresten du. Beraz, Erkidegoko Jarraibide Kontsularraren III. zatia 4. paragrafoan ezarri zen eskatzailea bera agertzeari buruzko arau orokorrari salbuespena egiten dio. Horrek guztiak ez du esan nahi bisatu-eskatzailea ez dela gonbidatu behar elkarrizketa pertsonal bat egitera, ez eta aurretik juzgatu behar diren gai horiek arautuko dituzten etorkizuneko tresna juridikoak ere.
- (12) Datuen babesarekiko errespetua bermatzeko, 95/46/EE Zuzentarauaren 29. artikulua bidez sortutako lan-taldeari kontsulta egin zaio.
- (13) 95/46/EE Zuzentaruaren estatu kideei aplikatzen zaie, erregelamendu honi jarraiki datu pertsonalak tratatzeari dagokionez.
- (14) Estatu kideek aukera eman behar dute eskatzaile guztiek beren eskaerak ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularratan zuzenean aurkezteko.
- (15) Ondoko edozein eskaeraren prozedura errazteko, hatz-marken kopia lortzeko aukera egon beharko litzateke 59 hilabeteko epean, VIS sisteman sartzen diren lehenengo alditik hasita. Epe hori pasa eta gero, hatz-markak berriro jaso behar dira.
- (16) Identifikatzaile biometrikoak jasotzea beharrezkoa denez, merkataritza-bitartekariak (hala nola bidai-agentziak) erabiltzeari utzi behar zaio lehenengo eskaerak egiteko, eta ondoko eskaerak egiteko baino ez da jo behar haiengana.
- (17) Beraz, Erkidegoko Jarraibide Kontsularra aldatu behar da.
- (18) Komenigarria da Batzordeak erregelamendu honen aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztea, VIS sistema abian jarri eta hiru egunetara, eta ondoren, lau urtean behin.
- (19) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dituztela beren aldetik zuzentaru honen helburuak behar bezala bete —hots, bisatu-eskaeren harrera eta tratamendua, VIS sisteman datu biometrikoak sartzeari eta Erkidegoko bisatuen politika erkidean parte hartzen duten estatu kide guztientzat arau erkide eta identifikatzaile biometriko elkarreragileak eta arau erkideak sartzeari dagokionez— eta, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horrek xedatzen duen subsidiariotasun-printzipioari jarraituz, helburu horiek lortzeko arautu behar dena arautzera mugatzen da erregelamendu hau.
- (20) Danimarkaren jarrera dela eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari erantsitako Protokolo 1. eta 2. artikuluei jarraiki, Danimarkak ez du parte hartzen

<sup>1</sup> L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, Erregelamenduak ez du lotzen, eta ezin zaio aplikatu. Kontuan izanda erregelamendu honek Schengengo altxorra garatzen duela, Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaren 3. zatiaren IV. tituluari jarraiki, Danimarkak, aipatutako Protokoloko 5. artikulua betez, sei hilabeteko epea du, Erregelamendua hartzen den egunetik hasita, erabakia estatuko legedian jasoko duen ala ez erabakitzeko.
- (21) Islandiari eta Norvegiari dagokionez, erregelamendu honek Schengengo altxorreko <sup>(1)</sup> xedapenak garatzen ditu, Europar Batasuneko Kontseiluak Islandiako Errepublikarekin eta Norvegiako Erresumarekin Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako akordioa betez. Xedapen horiek aipatutako akordioa garatzeko arauari buruzko Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiaren <sup>(2)</sup>, 1. artikulua B idatz-zatian daude jasota.
- (22) Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Erresuma Batuak ez du xedapen horietan parte hartzen, Kontseiluak 2000ko maiatzaren 29an hartutako 2000/365/EE Erabakiak xedatutakoari jarraiki <sup>(3)</sup>. Erabaki hori Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak Schengengo altxorreko hainbat xedapenetan parte hartzeko egindako eskariari buruzkoa da. Hori guztia dela eta, Erresuma Batuak ez du parte hartzen erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, Erregelamenduak ez du lotzen, eta ezin zaio aplikatu.
- (23) Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Irlandak ez du xedapen horietan parte hartzen Kontseiluak 2002ko otsailaren 28an hartutako 2002/192/EE Erabakiak xedatutakoari jarraiki <sup>(4)</sup>. Erabaki hori Irlandak Schengengo altxorreko hainbat xedapenetan parte hartzeko egindako eskariari buruzkoa da. Hori guztia dela eta, Irlandak ez du parte hartzen erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, Erregelamenduak ez du lotzen, eta ezin zaio aplikatu.
- (24) Suitzari dagokionez, erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunak eta Europako Erkidegoak Suitzar Konfederakundearekin Schengengo altxorra <sup>(5)</sup> betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako akordioa betez. Xedapen horiek 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikulua B idatz-zatian daude jasota, Kontseiluaren 2008/146/EE Erabakiaren 3. artikuluaekin lotuta <sup>(6)</sup>.
- (25) Liechtensteini dagokionez, erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunak, Europako Erkidegoak, Suitzar Konfederakundeak eta Liechtensteingo Printzerriak sinatutako Protokolaren ildotik. Protokolo hori Europar Batasunak, Europako Erkidegoarekin eta Suitzar Konfederakundearekin Suitzar Konfederakundeak Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako akordiora Liechtensteingo Printzerria atxikitzeari buruzkoa da. Xedapen horiek 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikulua B idatz-zatian daude jasota, Kontseiluaren 2008/146/EE Erabakiaren 3. artikuluaekin lotuta <sup>(7)</sup>.
- (26) Txipreri dagokionez, erregelamendu hau Schengengo altxorra garatzen duen egintza bat da, edo harekin lotuta dago beste modu batean, 2003ko Atxikitze-aktaren 3. artikulua 2. paragrafoaren ildotik.
- (27) Erregelamendu hau Schengengo altxorra garatzen duen egintza bat da, edo harekin lotuta dago beste modu batean, 2005eko Atxikitze-aktaren 4. artikulua 2. paragrafoaren ildotik.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Erkidegoko Jarraibide Kontsularren aldaketak**

Ordezkaritza diplomatikoen eta karrerako bulego kontsularren Erkidegoko Jarraibide Kontsularra honela aldatuko da:

<sup>1</sup> L 176 EO, 1999.07.10ekoa, 36. or.

<sup>2</sup> L 176 EO, 1999.07.10ekoa, 31. or.

<sup>3</sup> L 131 EO, 2000.06.01ekoa, 43. or.

<sup>4</sup> L 64 EO, 2002.03.07koa, 20. or.

<sup>5</sup> L 53 EO, 2008.02.27koa, 52. or.

<sup>6</sup> L 53 EO, 2008.02.27koa, 1. or.

<sup>7</sup> L 83 EO, 2008.03.26koa, 3. or.

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

7) II. zatia honela aldatuko da:

a) 1.2 paragrafoaren b) idatz-zatian paragrafo hauek gehituko dira:

«Estatu kide bat beste estatu kide baten edo bat baino gehiagoren ordezkari gisa jardun daiteke, modu mugatuan, eskaerak jasotzeko eta identifikatzaile biometrikoak erregistratzeko. 1.2 paragrafoaren c) eta e) idatz-zatietako dagozkien xedapenak aplikatuko dira. Ordezkaturako estatuari espedienteak eta datuak jaso eta transmitituko zaizkio, segurtasuneko eta datuen babeserako dagozkien arauak errespetatuz.

Ordezkaturako estatu kideak arduratuko dira datuak erabat zifratzeaz, estatu kide ordezkarien agintariak ordezkaturako estatu kidearen agintariari datuak fitxategi elektronikoen elektronikoki nahiz fisikoki transmititzen badizkiete ere.

Estatu kide ordezkariaren agintariak ordezkaturako estatu kideen agintariari elektronikoki transferitu behar dizkieten datuak zifratzea debekatzen duten hirugarren herrialdeetan, ordezkaturako estatu kideak ez dio utziko estatu kide ordezkariari datuak elektronikoki transferitzen.

Horrelakoetan, ordezkaturako estatu kide interesduna arduratuko da estatu kide ordezkariaren agintariak ordezkaturako estatu kide ordezkaturari datu elektronikoen erabat zifratuta fisikoki transferitzeaz edo fitxategiko euskarri informatikoan transferitzeaz, estatu kideko funtzionario kontsular baten bidez. Transferentzia egiteko beharrezkoa balitz gehiegizko neurriak edo arrazoizkoak ez diren neurriak hartzea, beste prozedura seguru baten bidez transferituko dira datuak, hala nola hirugarren herrialdeetan dokumentuak eta datu garrantzitsuak segurtasunez garraiatzeko esperientzia duten operadoreetara joz.

Transferentziaren segurtasun-maila datuen garrantzi-mailaren arabera izango da, kasu guztietan.

Estatu kideek edo Erkidegoak hirugarren herrialde interesdunekin akordio bat lortzeko ahalegina egingo dute, estatu kide interesdunen agintariaren artean elektronikoki transferitu beharreko datuak zifratzeko debekua kentzeko.»

b) testu hau jarri da d) idatz-zatiaren ordeztan:

«d) a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako epe laburrerako bisatuen jaulkipenerako ordezkariak eta ordezkariak mugatuak hemen zerrendatzen dira: 18. eranskinean ageri den bisatuen jaulkipenerako ordezkariak zerrendan.»

2) III. zatia honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren ordeztan, ondoko testu hau jarriko da:

### «1. Bisatu-eskaerak

1.1. *Bisatu-eskaeraren inprimakia. Eskaera-inprimakien kopurua;*

Eskatzaileak epe laburrerako bisatu-eskaeraren inprimakia bete beharko du. Epe laburrerako bisatu-eskaera aurkezteko, inprimaki bateratua erabiliko da. 16. eranskinean dago inprimaki horren eredu.

Gutxienez, eskaera-inprimakiaren ale bat bete beharko da, eta agintari nagusiei kontsultatzeko erabil daiteke, besteak beste. Prozedura nazionalak eskatzen duten heinean, estatu kideek ale gehiago betetzea eska dezakete.

1.2. *Identifikatzaile biometrikoak*

a) Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunean eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean xedatutako babesei jarraiki, Estatu kideek identifikatzaile hauek jasoko dituzte: aurpegiaren irudia eta hamar hatz-markak.

Lehen bisatu-eskaera egitean, eskatzailea bera agertu beharko da. Une horretan, identifikatzaile biometriko hauek hartuko dira:

– argazki bat, eskaneatutakoa edo eskaeraren unean hartutakoa, eta

– hamar hatz-marka, lauak eta digitalki hartuak.

Aurreko eskaera batean hartutako eskatzaile baten hatz-markak Bisatuen Informazio Sistemari (VIS) lehen aldiz sartu badira eskaera berria egin baino gehienez 59 hilabete lehenago, ondoko eskaerari kopiatuko dira.

Hala ere, bisatu-eskatzaileen nortasunari buruzko zalantzak baldin badaude, ordezkariak diplomatikoak edo bulego kontsularrak hatz-markak jasoko dituzte lehen adierazitako aldian.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Horrez gainera, eskaera aurkezteko unean ezin bada berehala egiaztatu hatz-markak lehen adierazitako aldian jaso direla, eskatzaileak hatz-markak jasotzeko eska dezake.

VIS Erregelamenduaren 9. artikulua 5. paragrafoari jarraiki, eskaerarekin datorren argazkia VIS sisteman sartuko da. Xede horretarako, ez da beharrezkoa eskatzailea bera agertzea.

Argazkiari aplikatu dakizkiokeen eskakizun teknikoak HEZINen 9303 dokumentuaren 1. zatiaren 6. edizioan xedatutako nazioarteko arauen arabera izango dira.

Hatz-markak hauen arabera hartuko dira: HEZINen arauak eta Batzordearen 2006ko irailaren 22ko 2006/648/EE Erabakia. Erabaki horrek identifikatzaile biometrikoei buruzko arauen zehaztapen teknikoak ezartzen ditu, Bisatuen Informazio Sistemaren (\*) garapenarekin lotuta.

Ordezkaritza diplomatikoko eta bulego kontsularreko langile gaituek eta behar bezala baimenduek jasoko dituzte identifikatzaile biometrikoak, bai eta mugetan bisatuak egiteko ardura duten agintariak ere. Halaber, ordezkaritza diplomatikoen edo bulego kontsularren gainbegiratupean, ohorezko kontsularen edo VII. zatiaren 1.3 eta 1.4 paragrafoetan aipatutako kanpo-zerbitzuen hornitzaileen langile gaituek eta behar bezala baimenduek ere jaso ditzakete identifikatzaile biometrikoak.

Behar bezala baimendutako langile kontsularrek soilik sar ditzakete datuak VIS sisteman, VIS Erregelamenduaren 6. artikulua 1. paragrafoari, 7. artikuluari, eta 9. artikulua 5. eta 6. paragrafoei jarraiki.

Estatu kideek bermatuko dute bilaketa-irizpide guztiak erabat erabiltzea, VIS Erregelamenduaren 15. artikulua arabera, ukoak eta identifikazio okerrak saihesteko.

### B) Salbuespenak

Eskatzaile hauek ez dituzte hatz-markak eman behar:

- 12 urte baino gutxiagoko haurrek,
- fisikoki har ezin daitezkeen hatz-markak dituzten pertsonak Hamar hatz baino gutxiagotan hatz-

markak har badaitezke, eskatzaileak dituen hatz-marken kopurua hartuko da. Hala ere, ezintasuna aldi baterako bada, eskatzaileak bere hatz-markak eman behar ditu, hurrengo bisatu-eskaera aurkeztean. Mugan bisatuak egiteko ardura duten ordezkaritza diplomatikoen edo bulego kontsularrek ahalmena izango dute aldi baterako ezintasunari buruzko argibideak eskatzeko. Erregistroan zailtasunak badaude, estatu kideek ziurtatu behar dute eskatzailearen duintasuna bermatzeko prozedura egokiak daudela. Hatz-markak hartzea fisikoki ezinezkoa izateak ez du eraginik izango bisatua egitean edo ukatzean,

- estatuburuak edo gobernuburuak eta gobernu nazionalen kideak, berekin dauden ezkontideak, eta beren ordezkaritza ofizialeko kideak, estatu kideetako gobernuak edo nazioarteko erakundeak ofizialki gonbidatzen dituztenean.
- errege-erreginek edo errege-familia bateko goimailako kideak, estatu kideetako gobernuak edo nazioarteko erakundeak ofizialki gonbidatzen dituztenean.

Kasu horietan, VIS sisteman “ez aplikagarria” aipamena sartu behar da.

(\*) L 267 EO, 2006.09.27koa, 41. or. »;

b) paragrafo hau gehituko da:

### «5. Langileen jokabidea

Estatu kideetako ordezkaritza diplomatikoak edo karrerako bulego kontsularrak arduratuko dira eskatzaileak adeitasunez hartuak izateaz.

Langile kontsularrek giza duintasuna erabat errespetatuko dute beren funtzioak betetzen ari direnean. Hartuko den edozein neurri, neurri horien bidez lortu nahi den helburuen arabera izango da.

Lanean ari direnean, langile kontsularrek ez dituzte pertsonak diskriminatuko sexuagatik, arrazagatik edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenagatik, ezgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik.».

3) VII. atalaren 1. zatia honela aldatuko da:

### «1. Bisatu-zerbitzuen antolaketa

#### 1.1. Bisatu-eskaeren harreraren eta tratamenduaren antolaketa

Estatu kide bakoitzak eskaeren harrera eta tratamendua antolatu behar du. Hasiera batean, eskaerak estatu kideko ordezkaritza diplomatikoan edo bulego kontsularrean aurkeztuko dira.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Estatu kideek hau egin beharko dute:

- ordezkaritza diplomatikoak edo bulego kontsularrak, mugetan bisatuak egiteko ardura duten agintariak eta beren ohorezko kontsulen bulegoak hornitzea identifikatzaile biometrikoak jasotzeko beharrezko materialarekin, baldin eta identifikatzaile biometrikoak 1.3 paragrafoaren arabera jasotzeko erabiltzen badituzte, edo
- 1.2 paragrafoari jarraiki, estatu kide batekin edo batekin baino gehiagorekin lan egingo dute tokiko lankidetzaren kontsularraren esparruaren barruan, edo beste edozein kontakturen bidez. Hauek izango dira kontaktu horietarako formak: ordezkaritza mugatuak, instalazioak batera erabiltzea edo eskaeren zentro erkide bat sortzea.

Berariazko egoeretan edo kokapenarekin lotutako arrazioak direla eta, egoera hauetan bezala:

- Eskatzaileen kopuru handia dela eta, ezin bada antolatu bisatu-eskaerak eta datuak behar bezala eta baldintza duinetan jasotzea, edo
- beste modu batean ezin bada bermatu hirugarren herrialde interesdunaren lurralde-estaldura,

eta jasotako lankidetzaren moduak ez badira egokiak estatu kide interesdunarentzat, estatu kideak kanpo-zerbitzuen hornitzaile batekin lan egin ahal izango du, azken baliabide gisa, 1.4 paragrafoari jarraiki.

Eskatzailea elkarrizketa pertsonal baterako deitzeko eskubideari kalterik egin gabe, III. zatiaren 4. paragrafoan jasotzen den bezala, antolaketa modu bat hautatzeak ez du derrigortuko eskatzailea behin baino gehiagotan pertsonalki aurkeztera, eskaera bat aurkezteko.

### *1.2. Estatu kideen arteko lankidetzaren moduak*

- a) Ordezkaritza diplomatikoak edo bulego kontsularrak elkartzeko erabakia hartzen denean, eskatu kide bateko edo gehiagoko ordezkaritza diplomatikoetako edo bulego kontsularrak langileek izapidetuko dituzte beste estatu kide bateko ordezkaritza diplomatikoan edo bulego kontsularraren zuzentzen zaizkien eskaerak (baita identifikatzaile biometrikoak ere), eta ekipoa beste estatu kide horrekin partekatuko dute. Elkartzeak eragindako estatu kideek adostuko dute zer iraupen izango duen ordezkaritza diplomatikoen edo bulego kontsularraren elkartzek, eta estatu kideak, zeinaren ordezkaritza diplomatikoa edo

bulego kontsularra erabiltzen ari diren, administrazio tasen zer zati jaso behar duen ere.

- b) «Eskaerak aurkezteko zentro erkideak» sortzen direnean, bi estatu kideko edo gehiagoko ordezkaritza diplomatikoetako edo bulego kontsularrak langileek eraikin bera erabiliko dute, haien zuzendutako bisatu-eskaerak jasotzeko (baita identifikatzaile biometrikoak ere). Eskatzaileak beren bisatu-eskaera tratatzeko ardura duen estatu kidera bidaliko dira. Estatu kideek adostuko dituzte lankidetzaren iraupena eta elkartzeko baldintzak, bai eta estatu kide parte-hartzaileen artean gastuak nola banatuko diren ere. Estatu kide batek izango du kontratuen ardura, logistikari eta harrera-herrialdearekin izan beharreko harreman diplomatikoei dagokienez.

### *1.3. Ohorezko kontsulengana jotzea*

Halaber, ohorezko kontsulei 1.5 paragrafoan aipatutako lanen zati bat edo lana osorik egiteko ahalmena eman dakieke. Neurri egokiak hartuko dira, datuen segurtasuna eta babesa bermatzeko.

Ohorezko kontsula ez bada estatu kideko funtzionario bat, lan horiek egiteko 19. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko ditu, C.c) paragrafoan ezarritakoa salbuetsita.

Ohorezko kontsula estatu kideko funtzionarioa bada, estatu kide horrek hauek aplikatu beharko ditu: lan horiek ordezkaritza diplomatikoak edo bulego kontsularrak egingo balitu, aplikatuko liratekeen baldintzen antzeko baldintzak.

### *1.4. Kanpo-zerbitzuen hornitzaileekin lankidetzaren moduak*

Estatu kideak kanpo-zerbitzuen hornitzaile batekin eta estatu kide batekin edo batekin baino gehiagorekin lan egiten saiatuko dira, kontratazio publikoko eta eskumeneko arauak kalterik egin gabe.

Kanpo-zerbitzuen hornitzaile batekin egin beharreko lankidetzaren 19. eranskinean ezarritako baldintzekin bat etorriko den tresna juridiko batean oinarrituko da.

Estatu kideek informazioa trukatuko dute, tokiko lankidetzaren kontsularraren esparruan, kanpo-zerbitzuen hornitzaileen hautaketari buruz eta beren tresna juridikoen baldintzak ezartzei buruz.

### *1.5. Kanpo-zerbitzuen hornitzaileekin egin beharreko lankidetzaren motak*

Kanpo-zerbitzuen hornitzaile batekin lan hauetako bat edo bat baino gehiago egiteko ahalmena izango du:

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) bisatuen eta eskaera-inprimakien baldintzei buruzko informazio orokorra ematea;
- b) eskatzaileari informatzea beharrezko ziurtagiriei buruz, zerrenda bat oinarritzat hartuta;
- c) datuak eta eskaerak jasotzea (baita identifikatzaile biometrikoak jasotzea ere) eta eskaera igortzea ordezkari-tza diplomatikora edo bulego kontsularrera;
- d) ordaindu beharreko tasak biltzea;
- e) ordezkari-tza diplomatikoan edo bulego kontsularrean edo kanpo-zerbitzuen hornitzailearen aurrean zuzenean aurkeztu behar dutenekin hitzorduetan kudeatzea;
- f) bidai-a-dokumentuak jasotzea ordezkari-tza diplomatikotik edo bulego kontsularretik (baita ukoaren jakinarazpena ere, dagokionean) eta eskatzaileari itzultzea.

### *1.6. Estatu kideen betebeharrak*

Kanpo-zerbitzuen hornitzaile bat hautatzean, estatu kideek enpresaren kaudimena eta fidagarritasuna aztertuko dituzte (baita beharrezko baimenak, merkataritza-erregistroko harpidetzea, elkarterko estatutuak eta banku-kontratuak ere) eta ziurtatuko dute ez dagoela interes-gatazkarik.

Estatu kide interesdunak arduratuko dira hautatutako kanpo-zerbitzuen hornitzaileek 1.4 paragrafoan adierazitako tresna juridikoak ezarritako baldintzak betetzeaz.

Estatu kide interesdunek datuen babeserako arauak betetzeko ardura izaten jarraituko dute, datuen tratamendurako, eta gainbegiratuak izan beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentarauari, 1995eko urriaren 24koari, jarraiki. Zuzentaru hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreakin dagokienez (\*).

Kanpo-zerbitzuen hornitzaile batekin lankidetzan aritzeak ez du mugatu eta salbuetsiko estatu kide interesdunaren estatuko zuzenbidetik eratorritako ardura bat bera ere, eskatzaileen datu pertsonalekin eta bisatuen tratamenduarekin lotutako betebeharrak ez betetzeagatik. Xedapen hau aplikatu egingo da kanpo-zerbitzuen

hornitzailearen aurka zuzenean ezar daitekeen edozein ekintzari kalterik egin gabe, hirugarren herrialde interesdunaren estatuko zuzenbidearen arabera.

Estatu kide interesdunak datuak erabat zifra daitezten arduratuko dira, kanpo-zerbitzuen hornitzaileak estatu kide interesdunari datuak elektronikoki nahiz fisikoki fitxategi elektronikotan transmititzean.

Kanpo-zerbitzuen hornitzaileek estatu kideen agintariei elektronikoki transferitu behar dizkieten datuak zifratzea debekatzen duten hirugarren herrialdeetan, estatu kideak ez dio utziko kanpo-zerbitzuen hornitzaileari datuak elektronikoki transferitzen.

Horrelakoetan, estatu kide interesduna arduratuko da kanpo-zerbitzuen hornitzaileak estatu kide interesdunari datu elektronikoki erabat zifratuta fisikoki transferitzeaz edo fitxategiko euskarri informatikoan transferitzeaz, estatu kideko funtzionario kontsular baten bidez. Transferentzia egiteko beharrezkoa balitz gehiegizko neurriak edo arazoizkoak ez diren neurriak hartzea, beste prozedura seguru baten bidez transferituko dira, hala nola hirugarren herrialdeetan dokumentuak eta datu garrantzitsuak segurtasunez garraiatzeko esperientzia duten operadoreetara joz.

Transferentziaren segurtasun-maila datuen garrantzi-mailaren arabera izango da, kasu guztietan.

Estatu kideek edo Erkidegoak hirugarren herrialde interesdunekin akordio bat lortzeko ahalegina egingo dute, kanpo-zerbitzuen hornitzaile batek estatu kide interesdunaren edo estatu kide interesdunen agintariei elektronikoki transferitu beharreko datuak zifratzeko debekua kentzeko.

Estatu kide interesdunek prestakuntza emango diote kanpo-zerbitzuen hornitzaileari, eskatzaileei zerbitzu egokia eta behar adina informazio emateko beharrezko jakintzeekin bat datorrena.

Zalantzarik izanez gero, estatu kide interesdunek aurreikusiko dute ordezkari-tza diplomatikoan edo bulego kontsularrean kanpo-zerbitzuen hornitzaile batek hartutako hatz-markak egiaztatzeko aukera.

Ordezkari-tza diplomatikoak edo bulego kontsularrak soilik egin ditzakete bisatu-eskaeren azterketak, behin-behineko elkarrizketak eta baimentze-



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

prozesuak, bai eta bisatu-etiketak inprimatu eta ezarri ere.

Kanpo-zerbitzuen hornitzaileek ezin dute inolaz ere erabili VIS sistema. Ordezkaritza diplomatikoetako edo bulego kontsularretako behar bezala baimendutako langileek soilik dute VIS sistemarako sarbidea.

Estatu kide interesdunak edo interesdunek zorrotz gainbegiratu dute 1.4 paragrafoan aipatutako tresna juridikoa abian jarri dela, hauek batez ere:

- a) kanpo-zerbitzuen hornitzaileak bisatu-eskatzaileei emandako bisatuaren baldintzei buruzko informazio orokorra eta eskaera-inprimakiak;
- b) segurtasun-neurri guztiak, teknikoak nahiz antolaketakoak, datuak hauen aurka babesteko beharrezkoak direnak: ustekabeen edo legez kontra suntsitzea edo ustekabeen galtzea, edo baimenik gabe aldatzea, ezagutaraztea edo eskuratzea (batez ere, lankidetzak berekin dakarrenean estatu kide interesduneko ordezkari diplomatikora edo bulego kontsularra espedienteak eta datuak bidaltzea) eta datu pertsonalak legez kontra tratatzeko beste modu batzuk.
- c) identifikatzaile biometrikoen jasotzea eta transmisioa;
- d) datuen babesari buruzko xedapenak betetzea bermatzeko hartu diren neurriak.

Horretarako, estatu kide interesdunaren edo interesdunen ordezkari diplomatikoak edo bulego kontsularrak ustekabeko kontrolak egingo ditu aldizka, kanpo-zerbitzuen hornitzailearen instalazioetan.

### *1.7. Tasa emandako zerbitzuengatik*

Kanpo-zerbitzuen hornitzaileek tasa bat eska dezakete emandako zerbitzuengatik, ordaindu beharreko tasa arruntaz gain, 12. eranskinean ezarritakoari jarraiki. Emandako zerbitzuen tasak kanpo-zerbitzuen hornitzailearen gastuen arabera izan beharko du, 1.5 paragrafoan zerrendatutako lan bat edo bat baino gehiago egiten duenean.

Emandako zerbitzuen tasa 1.4 paragrafoan aipatutako tresna juridikoan zehaztuko da.

Tokiko lankidetzak kontsularren esparruan, estatu kideek bermatuko dute eskatzaile bati eskatu beharreko tasak kanpo-zerbitzuen hornitzaileak emandako zerbitzuak behar bezala adierazten dituela eta tokiko egoeretara egokitzen dela. Era berean, zerbitzuei aplikatu beharreko tasa bateratzea proposatuko da.

Emandako zerbitzuen tasa ezin izango da handiagoa izan 12. eranskinean adierazitako bisatuen tasaren zenbatekoa baino, 12. eranskinean aurreikusitako bisatuen tasetatik salbuets daitekeela alde batera utzita.

Estatu kide interesdunek aukera emango diete eskatzaile guztiei eskaerak zuzenean ordezkari diplomatikoetan edo bulego kontsularretan aurkezteko.

### *1.8. Informazioa*

Estatu kideen ordezkari diplomatikoek eta bulego kontsularrek jendeak ikusteko moduan edukiko dute hitzordua lortzeko eta bisatu-eskaera aurkezteko erabil daitezkeen baliabideei buruzko informazio zehatza.

### *1.9. Zerbitzuaren jarraipena*

Baldin eta beste estatu kide batzuekin edo kanpo-zerbitzuen edozein hornitzaile motarekin egin beharreko lankidetzak bukatzen bada, estatu kideek bermatuko dute zerbitzu osoaren jarraipena.

### *1.10. Erabakia eta argitaratzea*

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote nola nahi duten antolatu eskaeren harrera eta tratamendua bulego kontsular bakoitzean. Batzordeak dagokion argitalpena egingo du.

Estatu kideek 1.4 paragrafoan aipatutako tresna juridikoaren kopia emango diote Batzordeari.

(\* L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or.».)

4) VIII. zatia 5.2 paragrafoa honela aldatuko da:

a) tituluaren ordezkari testu hau idatziko da:

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

«5.2. Estatu kideen ordezkariak diplomatikoen, bulego kontsularren eta merkataritza-bitartekarien arteko lankidetzak»;

b)

esaldi hau sartuko da tituluaren eta 5.2 paragrafoaren a) idatz-zatiaren artean:

«Ondoko eskaerak III. zatiaren 1.2 paragrafoari jarraiki egiteko, estatu kideek baimena eman diezaiekete beren ordezkariak diplomatikoei edo bulego kontsularrei merkataritza-bitartekariekin lankidetzan aritzeko (hau da, administrazio-gestoriekin eta garraio- edo bidaiari-agentziekin, hala nola turismo-operadoreekin eta txikizkariekin.)».

5) Eranskin hau gehituko da:

«19. ERANSKINA

### **Tresna juridikoan idatzita jasota egon beharko duten gutxieneko baldintzen zerrenda, kanpo-zerbitzuen hornitzaileekin lankidetzan arituz gero**

A. Lanean ari denean, kanpo-zerbitzuen hornitzaileak hauek egin beharko ditu, datuen babesarekin lotuta:

a) betiere bisatu-datuen baimendu gabeko irakurketa, kopia, aldaketa edo ezabaketa eragozteko, batez ere eskaeraren tratamenduaren arduraren duen estatu kideko ordezkariak diplomatikora edo bulego kontsularrera datuak transmititzean;

b) estatu kide interesdunetik edo interesdunetatik jasotako jarraibideei jarraiki, datuak transmititzea:

- elektronikoki, zifratuta, edo
- fisikoki, modu seguruan;

c) datuak ahal den azkarren transmititzea:

- fisikoki transferitutako datuei dagokienez, gutxienez astean behin transmititzea,
- elektronikoki transferitutako datu zifratuei dagokienez, beranduenez jota datuak jasotzen diren egunaren bukaeran;

d) datuak transmititu bezain laster ezabatzea eta ziurtatzea gorde daitezkeen datu bakarrak eskatzailearen izena eta kontaktu-xehetasunak direla (eskatzailearekin hitzordu bat egin ahal izateko), bai

eta pasaportearen zenbakia ere, eskatzaileari pasaportea itzuli arte, dagokionean;

e) segurtasun-neurri guztiak bermatzea, teknikoak nahiz antolaketa-koak, datuak honako hauen aurka babesteko beharrezkoak direnak: ustekabearen edo legez kontra suntsitzea edo ustekabearen galtzea, edo baimenik gabe aldatzea, ezagutaraztea edo eskuratzea (batez ere, lankidetzak berekin dakarrenean estatu kidearen ordezkariak diplomatikora edo bulego kontsularrera espedienteak eta datuak bidaltzea) eta datu pertsonalak legez kontra tratatzeko beste modu batzuk;

f) datuak bisatu-eskaeraren datu pertsonalen tratamendurako soilik erabiltzea, dagokion estatu kidearen izenean;

g) datuak babesteko arauak aplikatzea, gutxienez 95/46/EE Zuzentarauan ezarritako arauen baliokideak;

h) Eskatzaileei beharrezko informazioa ematea, VIS Erregelamenduaren 37. artikuluari jarraiki.

B. Lanean ari denean, kanpo-zerbitzuen hornitzaileak hauek egin beharko ditu, langileen jokabideari dagokionez:

a) langileek prestakuntza egokia izateaz arduratzea;

b) lanean ari denean, bere langileek hau egiten dutela bermatzea:

- eskatzaileak adeitasunez hartzea,
- eskatzaileen giza duintasuna eta osotasuna errespetatzea,
- pertsonak ez diskriminatzea sexuagatik, arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenagatik, ezgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik, eta
- konfidentzialtasun-arauak errespetatzea. Halaber, arau horiek aplikatu egingo dira lana uztean, edo tresna juridikoa etetean edo bukatzean.

c) enpresan lan egiten duten pertsonen nortasuna zehaztea uneoro;

d) langileek aurrekari penalik ez dutela eta beharrezko jakintzak dituztela frogatzea.

C. Lanean ari denean, kanpo-zerbitzuen hornitzaileak hauek egin beharko ditu:

a) estatu kideek baimendutako langileei bere lokaletan sartzeko uztea uneoro eta alde aurretik jakinarazi gabe, batez ere ikuskapenak egiteko;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- b) hitzordu-sistemara urrunetik sartzeko aukera bermatzea, ikuskapena egin ahal izateko;
  - c) kontrol-metodo egokiak erabiltzen direla bermatzea (adibidez: eskatzaile esperimentalak, web-kamerak);
  - d) hauek bermatzea: datuen babesaren betetzearen, txostenak egiteko betebeharraren, kanpo-auditorien eta lekuan bertan egin beharreko aldian aldiko egiaztatzeen ziurtagiriak erabil daitezkeela.
- D. Baldintza orokorrekin lotuta, kanpo-zerbitzuen hornitzaileak hauek egin beharko ditu:
- a) eskaera izapidetzeko ardura duten estatu kidearen edo kideen jarraibideak betez jardutea;
  - b) ustelkeriaren aurkako neurri egokiak hartzea (adibidez: langileen ordainketari buruzko xedapenak; lan hori egiteko langileak hautatzen laguntzea; bi pertsonen araua; errotazioaren printzipioa);
  - c) tresna juridikoaren xedapenak erabat errespetatzea. Tresna juridikoak etete- edo deuseztatze-klausula bat barne hartuko du (batez ere ezarritako arauak urratzen badira), bai eta berrikusketa-klausula bat ere, tresna juridikoak praktika egokienak adierazten dituela bermatzeko».

### *3. artikulua*

#### **Txostenak**

Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari erregelamendu honen aplikazioari buruz, VIS sistema abian jarri eta hiru urtera, eta ordutik aurrera, lau urtean behin. Txostenean adieraziko dira identifikatzaile biometrikoen bilketa eta erabilera abian nola jarri den; HEZINen aukeratutako arauaren egokitasuna; datuen babeserako araudia betetzen den ala ez; kanpo-zerbitzuen hornitzaileekin hartutako esperientzia, datu biometrikoen bilketari aipamen berezia eginez; hatz-markak jasotzeko 59 hilabeteen arauaren aplikazioa; eta bisatu-eskaeren harreraren eta izapidetzearen antolaketa. Era berean, txostenean hauek adieraziko dira, VIS Erregelamenduaren 17. artikulua 12., 13., 14. paragrafoetan eta 50. artikulua 4. paragrafoan oinarrituta: praktikan hatz-markak eman ezin zituzten pertsonen kasuak edo arrazoi juridikoak zirela-eta eskatzailea aurkeztea beharrezkoa ez zen kasuak, hatz-markak hartu ziren kasuen kopuruarekin alderatuta. Txostenean agertu beharko da praktikan hatz-markak eman ezin zituzten pertsonen bisatu ukatu zaien kasuei buruzko informazioa. Hala dagokionean, txostenarekin batera Erregelamendua aldatzeko proposamen egokiak aurkeztu beharko dira.

Era berean, lehen txostenak 12 urte baino gutxiagoko haurren hatz-markak behar bezain fidagarriak diren aztertuko du, identifikazioari eta egiaztatzeari dagokionez, eta batez ere, hatz-markak adinarekin nola eboluzionatzen diren. Horretarako, Batzordearen ardurapean egindako azterketa baten emaitzetan oinarrituko da.

### *13. artikulua.*

#### **Indarrean jartzea**

**Erregelamendu hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.**

Erregelamendu hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean, Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren arabera.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

*Europako Parlamentuaren izenean,*  
*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean,*  
*Presidentea*  
P. NECAS